

EDUYOGA eta JOLAS KOOPERATIBOAK

Eibarko Udalak Jolas kooperatiboen eta Eduyogako tailerra antolatu du.

- **Joko kooperatiboak:** agresibitate adierazpenak murriztea eta egokiak indartzea du helburu. Lankidetzak, komunikazioa eta elkartasun jarrerak sustatzea bilatzen duten proposamenak dira. Besteekin topatzea errazten dute.
- **Eduyoga:** Haurrentzako eta familiako Yoga – Jokoa. Balioei laguntzeko eta postura-ohitura egokiak berreskuratzeko asmoa du.

Tramitatzailea: Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: 4 urteko haurrak (2015 urtean jaioetakoak).

- **15€** (Eibarren erroldatuak).
- **30€** (Eibartik kanpokoak).

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:

- **Elektronikoki,** udal webgunetik: www.eibar.eus
Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki,** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: Ainhoa Muniategui.

Non: Portaleako 3. solairuan.

Datak: otsailak 1 eta 8.

Ordutegiak:

1. txanda: 16:45etatik 18:00etara.
2. txanda: 18:15etatik 19:30etara.

Ikasle kopurua: gutxienez 5 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 15 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Eskaera egiteko epea: urtarrilaren 20tik 27ra.

Haurrak heldu batengaitik lagunduta egon beharko dira tailerraren iraupen osoan zehar.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA”** izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Matrikulazioa presentzialki egiten bada, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da emandako datuak egiaztatzeko.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), 2020ko **urtarrilaren 30ean**. Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **urtarrilaren 30ean 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiak zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus), egongo da **urtarrilaren 30an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: talde batean izena emandakoen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleek osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzai atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan

